

GERNIKAKO AUTONOMIA ESTATUTUA ERREFORMATUZ EUSKAL AUTOGOBERNUA EGUNERATZEKO OINARRI ETA PRINTZIBIOEN PROPOSAMENA

AURKEZPENA.

Erreformaren helburuak eta *ratioa*.

Gernikako Estatutuak euskal autogobernua finkatzen, erakundetzen eta herritarren bizi kalitatea eta ongizatea hobetzen lagundu du. Lorpen horiek babestu eta hedatzeko, euskal gizartearen gehiengoaren borondateak beharrezko jotzen du eguneratzea eta sakontzea, jakin baitaki, berretsi zenetik hogeita hemeretzi urte igaro ondoren ere, Estatutua guztiz garatu gabe dagoela; eta, gainera, kezka ikusten du eskualdatu den zatia etengabe zalantzan jartzen dela, oinarri lege hedakorren bitartez eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina birzentralizatzailearen bidez: elementu horiek guk dauzkagun eskumenak hondatzen eta zulatzen dituzte, eta euskal gizarteak eskatzen dituen eta behar dituen politika publikoak garatu ahal izateko gure herri erakundeek duten ahalmena, ondorioz, mugatzen. Hortaz, bat gatoz eguneratzeko behar eta aukerarekin. Eguneratze hori euskal autogobernuaren berezitasunarekiko errespetuz eta elkarrekiko aitortzaz egin behar da, hitzarmen espiritua indartuz, eta adostutakoa betetzen dela ziurtatuko duen benetako aldeko sistema ezarri. Elkarrekiko aitortza, ituna eta demokrazia dira estatutuaren erreforma batek oinarri izan behar dituen zutabeak.

Aurrerago jasotzen diren Oinarri eta Printzipio deritzenen bidez euskal Autogobernua eguneratuz, estatus berriaren izaera hitzartua berritu eta sendotu gura da. Estatus Politiko Berria oinarritzko arau instituzionala izango da, egiazko eta benetako Autogobernu sistema politiko bat osatuko duena. Horrekin batera, lotura forma berri bat formalizatu beharko du Espainiako Estatuarekin, Eskubide Historikoen bitartez soil-soilik giltzaturik. Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak Eskubide Historiko horiek aitortu eta babesten ditu. Estatus berri horrek harreman berezia eta aldekoa formalizatuko du, ituna eta bi aldeen nazio izaera oinarri hartuta.

Horretarako, ez du soilik edukiko eskumen aitortuen zerrenda bat. Gainera, gatazka dagoenean benetan nola egikaritu den jasoko du, eta alde bikotasun eraginkorra hasieratik interpretatzeko bideak artikulatuko ditu. Ondorioz, adostasuna –ez mendekotasuna– beharrezkoa izango da, hitzartutakoa betetzen dela bermatzeko. Kontua ez da, beraz, eskumen-banaketa marrazte hutsa, baizik eta, batetik, aitortzea euskaldunok eskubidea eta ahalmena ditugula geure borondate kolektiboa adierazi eta baliatzeko; eta, bestetik, mekanismoak ezartzea, lortutako konpromisoak errespetatuko direla bermatuko dutenak.

1978ko Konstituzioak lehen xedapen gehigarria bezalako aurreikuspen eta tresnak jaso zituen, edota beste ikuspegi batetik, bigarren xedapen indargabetzaileak bera ere. Horiek, estatutu-eguneratzearen bidez, akordio politiko berri bat ahalbidetzen zuten. Gainera, Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarriaren ondorioz, gure autogobernuak eskubide historikoak espresuki erreserbatzen zituen, eta etorkizunean eguneratzea bazegoela adierazten.

Itun politiko berria nahi dugu subjektu politiko-juridiko titularraren baitan eta subjektu horren eta Estatuaren artean. Itun hori aitortutako Eskubide Historikoen eguneratze-dinamikan kokatzen da, eta euskal herritarren borondate demokratikoarekin duen loturan. Horretarako, uztartu egin behar dira legezkoasun printzipioa –Gernikako Estaturua, uneko eredu juridiko-politiko, baina bere potentzialtasunak dituena (Espainiako Konstituzioaren 1. Xedapen Gehigarria eta Estaturuaren Xedapen Gehigarri Bakarra)– eta printzipio demokratikoaren instrumentazioa. Estatus berri bat, haustura gabekoa, antolaketa politikoko forma berrietara egokitutakoa, bat datorrena munduak eta Europak XXI. mendean izango duten bilakabidearen baldintzekin.

Helburua da gure tradizio juridiko-instituzionaleko elementuak eguneratzea, belaunaldiko ariketa demokratiko berri bat eginez. Hori guztia, estaturu-hitzarmen berri baten kontestuan, espainiar Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriak eskaintzen duen garapenaren bidetik, xedapen horren irakurketa berria eginez, ematen dituen aukera guztiak sakondu eta zabaltzeko.

Euskal Herriaren identitate nazionalaren aitortza .

Euskal Herria identitate propioa duen herria da, berezia. Bereizgarri handienak dira bere hizkuntza, euskara, eta kultura propioa, Historian zehar iraun dutenak eta bere identitate nazional berezia hezurmamitu dutenak. Nazio honek bere identitatean eta tradizio juridiko propioan bidea aurkitzen du herritarren eskubide indibidual eta kolektiboentzat, herritar horiek globaltasunaren garaiaz (eta, gure kasuan, European integratzearenaz) erabat jabetuta daudelarik, non elkarren mendekotasunen errealitatea edo maila anitzeko gobernantza finkatzen ari baitiren.

Euskadi naziotasun historiko gisa identifika daiteke, Konstituzioaren esparrua baino lehenagoko Eskubide Historiko batzuen aitortzagatik eta Gernikako Estaturuaren lehen artikuluan adierazten den borondate kolektiboagatik.

Euskal Herria nazio da, zuzenbide konparatuan ezarritako parametro guztiak betetzen dituelako eta, gainera, hala aitortzen eta identifikatzen duelako bere biztanleriaren gehiengo batek.

Bere izaera historikoa eta berezitasun instituzionala Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian berean babestuta eta aitortuta daude.

Hortaz, Euskal Herri osoaren zati handi batek, testu politiko berrian, espainiar Estatuan elkarbizitzeko akordio berri bat proposatzen du; bere identitate nazionala, bere nortasuna eta hura identifikatzeko ezaugarriak berriaz aitortzea aldarrikatuz. Harreman hori elkarren mendekotasunaren kontzeptuan oinarrituko da, Foruen tradizioari jarraituz. Kontzeptu horren oinarritzeko printzipioa da batak bestea aitortzea eta elkarrekin adostea. Helburua da gure eskubide historikoen ezaugarri den aldeko harremanaren eraginkortasuna modernizatu eta garai berrietara egokitzea.

Horrela, subjektu politiko-juridiko titularra eratzen da, hitzarmen bai ekonomiko bai politikoko sistema baten oinarritua, dela erkidego barne-harremanak arautzeko, dela kanpo-harremanak arautzeko, hau da, Estaturantz eta Europar Batasunerantz orokorrean.

Euskal herritarrek euren egitura politikoa eta euren bizikidetza erregimena erabakitzeke duten eskubide demokratikoa.

Eskubide Historikoak eguneratzeko aurreikuspenak egon badaude bai Konstituzioan, bai Estatutuan. Gaur egun Estatus Politiko berri bat lantzen bada, Euskal Herriak bide horri ekiteko duen borondate berriagatik izango da. Horrelako azken adierazpena duela berrogei urte izan zen, Gernikako Estatutuaren bitartez.

Euskal Herriak bere Eskubide Historikoak eguneratzen sakontzeko beharra sentitzen du orain. Helburua da erkidego bereizi gisa dituen erronkei aurre egiteko ahalmen berriak izatea, Estatuarekiko harremanaren ikuspegia aldatuz, kontuan izanik erronka horiei aurre egiteko kontestua zein den: dagoeneko hemen den errealitate globalizatua, lehiakorra eta interdependentea. Horrek guztiak neurri berean eskatzen ditu barne kohesioa, bereizketa lehiakorra eta lankidetzak.

Erabakitzea, egungo mundu konplexu eta interdependentean, beti da koerabakitzea. Eta koerabaki orok dakartza erabakia partekatzen dutenen arteko aitortza, erantzukizuna eta eskakizunak. Horrexegatik, gizarte pluralek, estatu-mailakoak nahiz horren azpikoak izan, koerabakitzeke mekanismoen bidez egituratzen dute beren barne aniztasuna; itunduta bakarrik mugi daitezkeen lotura adostuak ezarriz.

Euskal Herriaren borondatea (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako herritarren erabaki askez adierazia) eta bere historiaren haritik herri gisa dagozkiokeen eskubide historikoak (Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian eta Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarri bakarrean xedatzen denaren arabera, hain zuzen) dira, bada, indarrean dagoen 1979ko Estatutuan jasotako estatutu politikoa eguneratuko duen proposamen berri bat lantzeko oinarria eta bidea, hurrenez hurren. Eta negoziazioa, ituna lortzeko bidea.

Alderdi sozialetan sakontzea. Herritarren eskubide eta betebeharrak zabaltzea.

1979ko Estatutu ituna eguneratu, erreformatu eta berritzeko ekimen honi bultzada ematen dion proiektu politikoak, nahi dugun Euskadik, euskal herritarren babesa eta garapena ditu helburu. Gizarte kohesioa eta aukera berdintasuna lortzen aurrera jarraitu nahi dugu, eta horrek injustizian oinarritutako desberdintasunen aurka etengabe borrokatzea dakar. Garrantzia handi du gizarte eskubideen dimentsioak politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipio multzo oso bat integratzea.

Eskumen banaketa.

Proiektu politiko berriak ekarriko duen eskumen banaketa egokituko egingo da Euskadi-Estatu harreman esparru politiko berrira, berezitasunean eta alde bikotasunean oinarrituz dena.

Subjektu politiko-juridiko titularren eskumen esparruak jaso behar ditu bai bere lurralde eremuaren barruan egikaritu behar dituen eskumenak, bai erabiltzeko ahalmen eta erabakimen jakin batzuk Estatuaren, Europar Batasunaren eta kanpo edo nazioarteko harremanei dagokien esparruan.

Eskumen esparru eta sistemaren berreraketa eta eguneratze honek zenbait inplikazio ditu: lehenengo eta behin, eremu material berriak bereganatzea eta eskumen kontzeptu batzuen norainokoa zehaztea. Halaber, eskumen tipologia berri bat ezartzea dakar, garrantzi berezia emanez eskumen baldintzatuak modu eraginkorrean eta behar bezala bermatuta jasotzeari, hutsean gera ez daitezen edo funtsa eta edukia galaraz ez dakien.

Subjektu politiko-juridiko titularrak bereganatutako aginte politikoak beharrezko arau estaldura duela bermatze aldera, subjektu politiko-juridiko titularrari eskumena aitortzen dioten itemen funts juridiko-konstituzionala Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian jasoko da.

Ekonomia-, zerga- eta finantza-harremanak, elkarrenganako errespetuan oinarrituta eta Ekonomia Itunaren sistema bidez bermatuta.

Azpimarratuta dagoenez, Lurralde Historikoen eskubide historiko juridiko-publikoetan oinarritzen da gure ekonomia-, zerga- eta finantza-harremanen sistema. Horrek gure autogobernua bereizi egiten du eta bere hazkuntza organikoa babesten du. Itunpeko erregimenari datzekion eskumen potentziak ahalbidetu dizkigu, beste aurrerapen batzuen artean, gizarte-eraikuntza eta gizarteratze tresna propioak, aberastasun industrialak edo gure kultura garatzeko geure tresnak.

Horren ondorioz, garapen sozioekonomikoaren eredu propioa finkatzeko autogobernu sistema bat artikula daiteke. Kontua da, ekonomiaren kode etikoaren alde zalantzarik gabe eginez, euskal estrategia ekonomiko bat bultzatzea, hezkuntzaren bikaintasunean, berrikuntzan, gizarte kohesioan eta bokazio globalean oinarrituta.

Euskadiren ordezkariak Europako eta nazioarteko erakunde eta antolakundeetan. Bere kanpo proiektzioa.

Estatus berri erreformatuak aitortu behar du Euskadik parte hartu behar duela eskumen propioei eragiten dieten Nazioarteko Hitzarmenetan. Horretarako, subjektu politiko-juridiko titularrari aukera ematen zaio arauz besteko alde biko akordioak egiteko, nazioarteko tratatuen legearen arabera.

Testu berrituak, era berean, parte hartze zuzena bermatu behar du Europar Batasunaren tratatuak berrikusteko ekinbideei buruz Estatuaren aldetik informazioa jasotzeko eskubideari dagokionez. Estatuak Europar Batasunean mantenduko dituen jarrerak erabakitzen parte hartzeko eskubidea ere aitortu behar da, edota aldebikotasuna Euskadiren eskumenetan eragiten duten Europako gaietan Estatuak izango dituen jarrera horiek lantzerakoan.

Testu artikuludunak zuzenean parte hartzea ere aitortuko du, Europako erakunde eta organismoetan eta subsidiaritasun eta proportzio printzipioen kontrolean. Eta, amaitzeko, araudi berriak estaldura eman behar dio Europar Batasunaren zuzenbidea Euskadiren eskumen esparruan aplikatu eta gauzatzeari, Europako funtsak zuzenean kudeatzeari, edo Europar Batasunaren Justizia Auzitegian hark ezartzen duen moduan akzioak hasteko posibilitateari.

"Kanpo ekintzari" dagokion alderdi zehatzak beste hainbat ekintza eremu jasotzen ditu: bereziki, mugaz gaindiko, eskualde arteko eta garapenerako lankidetzak. Halaber, nazioarteko organismoetan parte hartzea, kanpo ekintzak koordinatzea eta nazioarteko proiektzioa hartzen ditu.

Itunpeko berme sistema.

Euskal autogobernua eguneratzeak gure erakunde politikoen itunpeko izaera benetan berritu eta indartzera eramán behar du. Ez dago itunik elkarrekiko berme sistemarik gabe, hitzartutakoa interpretatu eta betetzea aldeetako baten esku gera ez dadin. Negoziazio prozesuak itun bat ekarri behar du, alde bikotasun eraginkorrak arautuko duena, eta bermeak eta leialtasun baldintzak dituena.

Akordioa ezinbesteko betekizuna izango da eztabaidatutako arau bakoitzak euskal lurraldean indarra izan dezan.

Eskubide historikoen erreserba klausula mantentzea.

Arlo honetan zeresan handia du Espainiako Konstituzioaren 1. xedapen gehigarriak, eta irakurketa eguneratzaile bat egin beharko zaio. Bigarren erreferentzia Estatutuaren xedapen gehigarria da, adierazten baitu Estatutu honetan finkatutako autonomia-araubidea onartu izanak ez dakarrela Euskal Herriak bere historiaren haritik herri gisa dagozkiokeen eskubideei uko egiten dienik, eskubide horiek gaurkotu ahal izango dituela, legeek agintzen dutenarekin bat.

Ildo horretan, euskal autogobernua eguneratzeak legezkotasun printzipioari men egin behar diola ezartzea beharrezkoa da.

Hala ere, legezkotasuna errespetatzeak ez du printzipio demokratikoa hautsi behar. Printzipio horrek euskal herritarren erabakiari balio garrantzitsu eta lehen mailakoa ematea eskatzen du. Printzipio hori, pareko indarrez edo gehiagoz, indarrean dagoen legezkotasuna ere bada.

Printzipio demokratikoa eta legezkotasun printzipioa errespetatzea eta horren eragimen konbinatua lortzea euskarri sozial eta politiko nagusiak izango dira, euskal autogobernuaren eguneratze bidean aurrera egin ahal izaten utziko diguten balioak eta erreferentziak zehazteko.

Subjektu politiko-juridikoaren izena.

Dokumentu honetan, "subjektu politiko-juridikoa" adierazpidea erabili dugu estatus politiko berria bereganatuko duen enteaz hitz egiteko. Garbi dago subjektu juridiko-politiko horrek Euskadi definitzen duen eta berarekin bat datorren izen bat izan behar duela. Balio sinboliko handiko kontu bat da. Dokumentu hau lantzeko prozesuan, zenbait kontzepturekin lan egin dugu. Bada, kontzeptu horiek gainerako alderdi politikoekin konpartitu nahi ditugu, eta horregatik erantsi ditugu ordena alfabetikoan:

- **Euskal Foru Erkidegoa:** gure proposamen osoa inspiratzen dituzten eskubide historikoak eta foraltasuna hartzen ditu erreferentziatzat.
- **Euskal Erkidego Nazionala:** Euskal Herriaren identitate nazionala nabarmentzen du, hau da, euskal Nazioaren aitortza.
- **Euskal Estatu Autonomoa:** definizio hau 1931ko Estatutu-proiektuan erabili zen, eta hainbat alderdik proposatu dituzten eredu federal edo konfederalen kontzeptua ekartzen digu gogora.
- **Foru Estatua:** estatu-kontzeptua lotzen du orain eguneratu nahi dugun foru-bereztasun historikoarekin.

EUSKAL AUTOGOBERNUA ERREFORMATU ETA EGUNERATZEKO

OINARRI ETA PRINTZPIOAK

I. EUSKAL HERRIAREN IDENTITATE NAZIONALAREN AITORTZA.

Euskal autogobernua eguneratzen duen testu artikuludunak adierazi egin behar du Euskal Herria, Europako herrien artean, identitate propioa duen herria dela, historian zehar bizirik iraun duen ondare linguistiko, kultural eta juridiko-instituzional propioaren jabe dela, eta geografikoki zazpi lurraldetan kokatuta dagoela, Europako estatu bitan –Espainian eta Frantzia– eta hiru erakunde esparrutan antolatuta: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoak kudeatzen duen lurraldea. Hizkuntza, euskara, eta kultura propioak eta erkidego politiko bateko kide izatearen sena, bai eta aurrez aipatutako gainerako faktoreak ere, dira euskal identitate nazionala eraikitzen dutenak.

Horrekin koherenteak izanik, historian zehar eutsi egin dion identitate soziokulturala duen Herri baten borondate demokratikoaren adierazpen juridiko-politikoak izango da Estatus Politiko berria; ezaugarri politiko propioak izango dituen, besteak beste nabarmentzekoa, erkidego politiko bereko, nazio bereko, kide izatearen sen guztiz zabaldua. Identitate nazional horrexen, bere naziotasunaren, adierazpide gisa dagoeneko agerraldiak izan zituen 1936an eta 1979an, eta orain bere berritzeko gogoia berriro agerrarazten du, bere burua bizitza publikoaren eremu guztietan proiektatuz, errealitate globalizatu eta interdependente batean euskal gizartearen eskakizun eta beharretara egokitzeko. Horregatik, aurreko garaietan azaldu duen bezalatsu, bere autogobernua sakontzen jarraitu nahi duten herritarrez osatutako nazio baten borondatearen lekukotasuna emango du testu artikuludunak. Bere herritarren eskubide indibidual eta kolektiboen esparru eta bidea bere identitate nazionalen eta bere aspaldiko autogobernua (foruetan) daukan nazio bat, eta bere buruari eman nahi dizkion egitura politikoaren eta bizikidetzaren erregimenaren funtsa herritar horien borondate demokratikoan daukana.

1978ko Konstituzioak bere lehen xedapen gehigarrian babesten, errespetatzen eta eguneratzera bultzatzen dituen euskal eskubide historikoek ezinbesteko oinarri juridikoa ematen dute sustraia foruetan duen euskal autogobernua bereizi, bakar eta orokortu ezina – eta, gainera, Konstituzio Auzitegiak babesa eman diona– garatzen jarraitzeko. Eskubide historiko horien titularra euskal herria da, eta bere identitate nazionalak oinarri ematen dio aitortua duen errealitate juridiko-instituzionalari. Testu artikuludunak urrats bat aurrera egin beharko du 1978ko Konstituzioak babesten eta errespetatzen dituen euskal eskubide historiko horiek eguneratzen. Horretarako, dagoeneko Gernikako Estatuak eta Estatuaren legedi arruntak gauzatu duen eguneratzea finkatuko du, eta hedatzea posible den eremu eta arlo guztietarantz hedatuko. Beraz, eskubideon interpretazioa zabalduko du gure autogobernua sakontzea eta blindatzea ahalbidetzen duten maila berrietara; eta horrekin batera, Euskal Herriari euskarri konstituzionala emango dio Euskadik Estatuarekin izango duen harremanaren eredu berri bat hezurramitzeko. Eredu hori alde bikoia izango da, elkar errespetatu eta aitortzekoa, izaera konfederalekoa. Lehen xedapen gehigarria, bestalde, bai Euskal Autonomia Erkidegoak bai Nafarroako Foru Erkidegoak bokazio forala dutela aitortzen eta babesten duen elementu konstituzional bat ere bada. Jomuga komuna da uztartzea, batetik, ituntzearen tradizio historikoa, eta bestetik, eskakizun demokratikoak.

II. EGITURA POLITIKOA ETA BIZIKIDETZA ERREGIMENA ERABAKITZEKO EUSKAL HERRITARREN ESKUBIDE DEMOKRATIKOA.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeetako herritarren erabakimen aske eta demokratikoa baliatuz, Euskal Herriak borondatea adierazi du bere Eskubide Historikoak garatzeko. Garapen hori aurreikusita dago bai Konstituzioan, bai Estatutuan: "lurralde forudunen eskubide historikoak eguneratzeko" (Konstituzioaren arabera) edo "bere historiaren haritik herri (Euskal Herri) gisa dagozkiokeen eskubideak" (Estatutuaren arabera). Borondate hori da Estatutu Politiko berri hau lantzeko arrazoaia.

Horregatik, oinarri eta printzipio horietan oinarrituta lantzen den testu artikuluduna formulazio juridiko-positiboa izango da, euskal herritarrek euren egitura politikoa eta euren bizikidetza erregimena erabakitzeke duten eskubide demokratikoaren ariketa itunduaren formulazio juridiko-positiboa, hain zuzen ere. Eta, horretarako, herritarren gehiengoaren borondateari garrantzizko arau-balioa eman beharko zaio.

Testua idatziko dutenak puntu honetan gidatuko dituen oinarritzko jarraibideak hanka bi izango ditu: alde batetik, foruen garaitik euskal lurraldeen antolaketa politikoen ispilu izan den tradizio itunzalea eta, bestetik, gizarte demokratiko modernoaren eskakizunak, honek ez baitu onartzen herritarren berrespena ez duen bizikidetza politikoen formularik. Ituna eta demokrazia, horiek izango dira XXI. mendeko euskal nazioaren antolaketa politikoa sostengatuko duten zutabe biak.

III. ALDERDI SOZIALETAN SAKONTZEA: HERRITARREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ZABALTZEA.

Oraingo autogobernu esparrua eguneratzean, agiri honetan jasotzen diren oinarri eta printzipioak garatzen dituen testu artikuludunak aipamen esplizitua egingo die Eusko Legebiltzarrak onartu dituen legeetan aitortzen diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturelei. Helburua da indarrean dagoen Gernikako Estatutuaren 9. artikuluaen –herritarren oinarritzko eskubide eta betebeharrak eta herri aginteek zinezko eta benetako berdintasuna sustatzeko eta parte hartze politikoa bideratzeko duten betebeharrak dagokionaren– formulazio berri bat egitea, proiektu programatiko argi eta garbiko edukiak formulatze aldera.

IV. ERAKUNDE-ANTOLAKETA EREDUA.

Testu artikuludunak erakunde arkitektura deszentralizatuaren eredu bat aurreikusten jarraituko du. 1979tik indarrean dagoen ereduak bezala, eredu honek ez du federalismo dualarena den "eragile batek eskumen bat" erregela jarraituko; baizik eta federalismo kooperatiboaren edo, gurago bada, maila anitzeko gobernantzaren jarraibideak bere egingo ditu. Horretarako, elkarlan eta lankidetzaren printzipioak eraginkor bilakatuko dituen eskumen-eremu partekatuak eta topaguneak izango ditu. Hori guztia, gizartearen norabidea zehazteko lana erantzukizun bateratua eta partekatua dela sinetsita. Foruen bereiztasuna hezuramitzen duen eredu bat da. Bereiztasun hori ez da lurralde erakundeena (hertsiki foru erakundetzat jotzen direnena) soilik, baita subjektu politiko-juridiko titular osoaren erakunde komunena eta udal erakundeena ere. Oinarri honen artikulazioak tokiko erregimenari buruzko eskumen berezia aitortu beharko dio Euskadiri, sustrai historiko sakona baitu.

Hiru gobernu mailen artean egon beharko diren koordinatze, hurbiltze eta topatze tresnei dagokienez, indarrean dagoen Tokiko Politika Publikoen Kontseilua mantendu egingo da, nahiz eta beste batzuk, izaera osagarrikoak, agian sortu; baina horregatik ezin gobernu mailaren berme instituzionalari kalte egin gabe eta, beraz, kalterik egin gabe lurralde bakoitzak bere autogobernu eremu propioa mantendu eta garatzeko eta politika publikoak aplikatzeko posibilitateari ere. Horren guztiak eskatuko du tokiko aginteak "Euskal Herriaren aginteak" jorratzen dituen tituluan sartzea, eta baita erkidego modernoago, iraunkorrago eta berdintsuago baterantz aurrera egiten jarraitzea ahalbidetuko duten topaguneak arautzea ere.

Euskadiko herri aginteen barne antolaketari dagokionez, subjektu politiko-juridiko titularrari Euskal Herriko Justizia Administrazioa antolatzeko ahalmena aitortuko zaio. Izan ere, Erkidegoaren autoantolaketa ahalmenaren nahitaezko osagaia da, foru tradizioarekin eta esperientzia autonomiko historikoarekin bat datorrena. Subjektu politiko-juridiko titularrak aipatu den eskumena bereganatuko du, 1936ko Estatutuaren 3. artikulua irismenarekin. Barne izango dira espetze politika propioa eta auzien burutze arrunta EAEko Auzitegi Nagusiari ematea, Botere Judizialaren batasunaren eta Auzitegi Gorenaren nagusitasunaren mende, Estatuak emandako legediari buruz doktrina bateratzera mugatuta bada ere.

V. EUSKADIREN ESKUMENAK ARGI IDENTIFIKATZEA.

Autogobernua eguneratzeak gure eskumen ondarea berritzea ekarri behar du. Testu artikuludunak euskal autogobernua mugatzen duten eskumen oinarriak birplanteatu egingo ditu, aukera emateko: a) subjektu politiko-juridiko titularrari aitortutako baina artean eskualdatu gabeko aginte eremua berresteko, berehala modu eraginkorrean bereganatu ahal dezan; b) aitortu eta eskualdatutako aginte publikoa berreskuratzeko eta foru eremuan birkokatze, larri murrizten denean legedi organikoaren, oinarrizko legediaren eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina murriztailearen ondorioz, horrela hiru higadura iturri horiek kaltetu ez dezaten; eta c) Euskadiri Estatutuak aitortutako eskumenen *quantum* guztia zabaltzeko, Konstituzioak babestutako eskubide historikoak sistematikoki eta asmo handiz eguneratuz, eremu material guztietan proiektaturik.

Subjektu politiko-juridikoak bereganatutako botere politikoak arau-babes nahikoa duela bermatzeko, subjektu politiko-juridiko titularraren eskumen-itemen oinarri juridiko-konstituzionala Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian egongo da; dena dela, Estatuarekin harremanak izateko proposatzen den eredia ikusita, printzipio demokratikoa ere izango litzateke eskumen-multzo berriaren iturri. Horrenbestez, arau- eta eskumen-esparru berriari, EKren 148. eta 149. artikuluen operatibotasuna modulatu egingo da; izan ere, nahiz eta bi manamendu horiek araubide komunez Autonomia Erkidegoei ematen dieten Espainiako Konstituzioaren 147. artikulua Autonomia Estatutuei egotzen dien eskumenen edukia, Euskadiren kasuan, eta foru-klausularekin bat etorritik, Konstituzio Auzitegiaren doktrinari garbi dago finkatuta euskal Estatutua bera dela, eta baita Estatuko oinarrizko lege arruntak ere, foru-sustraiak duten euskal eskumenak eta haien irismena determinatzen dituzten tresna juridikoak. Horrek eraldatuko du –eta nabarmen handituko du– boterearen funtsa, zeren subjektu politiko-juridiko titularrari foru-sustraiak duen eskumen-multzo zabala emango baitio, eta, gainera, eskumen horiek Konstituzioaren VIII. Tituluaren jarduera-eremutik kanpo egongo dira.

Eskumen-eskema horretatik abiatuta, lantzen den testu artikulatuak Itun politiko moduko bat konfiguratu du, hau da, eskumen-multzo eskusibo eta erreserbatua, indarrean dagoen Ekonomia Itunarekin homologatu daitekeena ikusmolde, egitura eta operatibotasun aldetik.

Horri begira, Gernikako Estatutuan aurreikusitako eskumenak nabarmen eraldatu behar dira. Hasteko, "Itundutako gaien" lehenengo multzo bat azpimarratzen dugu, alegia, sektorialak izanik euskal izaera eta identitate bereziaren babesa biziki adierazten duten gaiak: euskara eta euskal kultura, hezkuntza, segurtasuna, enplegu publikoa, zuzenbide zibila, ekonomia itunaren araubidea, hiru euskal foru-maila instituzionalen antolaketa instituzional propioa (erkidea, lurraldekoa eta udal mailakoa) eta Justizia Administrazioa (azken kasu horretan, espainiar Botere Judizial unitarioan integrazeari buruz lehen aipatu ditugun baldintzekin). Eremu horietan, Itun Politikoaren birtualtasuna baldintzatu dezakeen gauza bakarra oinarritzko eskubideen eduki itundua eta Estatutuko harmonizazio-arauak dira.

Hizkuntza-politika eta euskara ere –euskara "itundutako gaitzat" hartuta– epigrafe honetan azpimarratu behar dira kultura-ondare komun, komunikazio-kanal eta identitate-faktore gisa, zeren gure unibertso sinbolikoaren eta gure bizikidetzaren sozialaren funtseko oinarriak baitira. Testu artikulatuak modu garbi eta agerikoan adieraziko du hori guztia, eta hizkuntzen arteko bizikidetzaren harmonizatuaren oinarriak jartzen dituen erregimen batean sakonduko du, herritarrek euren hizkuntza-aukera erabili ahal izan dezaten, modu erreal eta eraginkorrean eta berdintasunez. Euskara gure Herriaren jatorritzko hizkuntza da, eta euskal herritar guztiek badute euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

Bigarren multzoak bere lurralde-eremuan –eremu hori lurralde-itsasoraino hedatzen da– dauden baliabide naturalen titulartasuna aitortuko die euskal instituzioei, dela jabari publiko moduan dela ondare moduan, eta bertan kokatutako azpiegiturena ere bai.

Hirugarrenik, lan harremanen eta gizarte-babes edo segurantzaren sistemekin zerikusia duten eskumen guztiak egotziko dizkie euskal botere publikoari, Euskadiren ahalmen legegile osoa barne sartuta. Horren funtsezko arrazoia da Euskadin badela gizarte-eragileak biltzen dituen azpisistema oso bat. Testuak barne hartuko ditu espainiar Estatuan dauden sistemei zuzendutako lankidetzaren eta elkartasun-mekanismoak.

Bukatzeko, espainiar Estatuarekin itundutako espazio bat definituko du Administrazio publikoaren araubide juridiko eta erlazioaren alorrean (bereziki, Estatuarekiko harremanei dagokienez); halaber, beharrezkoa izango da itundutako espazio hori definitzea Euskadiko mugaz gaindik harremanak errespetatu daitezzen, eta baita Europako eta nazioarteko eremuan duen parte-hartzea ere errespetatu dadin.

Gainera, sistema Estatuarekin kooperatzeko eredu berri batekin osatuko da, bi alorretara zuzenduta: alde batetik, espainiar Estatuko sistema instituzionalaren alde anitzeko lankidetzaren Euskadik duen parte-hartzeari dagokionez; hau osorik mantenduko da ikuspegi formaletik, eta baita leialtasun instituzionalaren eta lurralde-elkartasunaren ikuspuntutik ere. Dena dela, alor materialean, hartzen diren erabakietatik kanpo utziko du Euskadi, eskumen-asimetriak hala justifikatzen duenean. Beste alde batetik, euskal foru-berezitasunaren tratamenduari dagokiona dugu, hor alde biko lankidetzaren eredu bat nagusituko baita Estatuaren eta Euskadiren artean. Euskal Itun Politikoa eredu horren barnean kudeatuko da.

VI. HARREMAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAK, ELKARRENGANAKO ERRESPETUAN OINARRITUAK ETA EKONOMIA ITUNAREN SISTEMAREN BIDEZ BERMATUAK.

Euskal autogobernuaren eguneraketak erregimen ekonomiko, finantzario eta fiskalean ere izango du eragina, Ekonomia Itunaren babesa eta beraren berezitasunaren iraupena irmotasunez defendatuz. Lehenik eta behin, Gernikako Estatutuaren 41. artikulua adierazpen literala aldatuko da, argi geratu dadin Ekonomia Itunaren foru-sistema tradizionalak Estatuarekiko harremanetan funtzionatuko duela izaera ekonomikoaren ordena guzti-guztietan: finantzarioa, ekonomikoa eta fiskala. Horrekin bat etorriz, legedi estatala Euskadin aplikatzeari buruzko erregimen bat ezarriko da, Ogasun orokorraren berezko gaiak osatuz eta bilduz, "itundutako gai" bezala; bertan, espazio zabal eta garbi bat geratuko da euskal legediarentzat, araubide juridikoarekin eta prozedura administratiboarekin lotutako azpigaietan, kontratu publikoen legedia barne sartuta.

Gainera, garbi utziko du Ekonomia Ituna *"unibertso itxi bat dela, bai eskumen estataleko tributuak eta bai foru-eskumeneakoak arautzen dituen, hala hitzartuak direnak nola hitzartuak ez direnak"*.

Beste alde batetik, berme juridiko eraginkorrak ezarriko dira Estatuak negoziatu dezan, beharrezkoa den guztietan, Ekonomia Itunaren alderdi guztien eboluzio-akordio bat, "ezer ez egitearen" estrategia ez dadin beti mesedegarria izan Estatuarentzat.

Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua Euskadin aplikatzeko erregimen bat ezarriko da, beraren autonomia finantzarioa ez dadin mugatu parte hartzeko ezintasunagatik edo Estatuak aldebakarrez bereganatzen duelako defizitaren eta zorraren mugak maila administratiboan artean banatzeko prozedura; ezta Estatuaren kontrolak zorrotzen direlako, tutoretza hierarkiko bat ezartzera iritsiz Erkidegoen jardun finantzarioaren gainean, aurrekontuaren oreka eta egonkortasuna bermatzeko aitzakiarekin. Laburbilduz, Ekonomia Itunak bere eduki finantzarioa berriztatu behar du; bestela, gerta liteke ez izatea egokia aurrez aurre dituen eremu ekonomiko-finantzario guztietarako, edo, beste modu batean esanda, arriskua izango litzateke ez uztea aurrera egiten autogobernu ekonomikoaren bidean, maila handiago eta hobeak lortzeari begira.

VII. LURRALDEARTEKO HARREMANAK NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREKIN ETA FRANTZIAR ESTATUAN KOKATUTAKO EUSKAL LURRALDEAK BILTZEN DITUEN ELKARGO BAKARRAREKIN, BAKOITZAREN INSTITUZIOEN BORONDATEAREN ARABERA, LURRALDEEK ETA ESTATUAK HORREN INGURUAN DITUZTEN ARAUDIAK ETA EUROPAR BATASUNAREN ARAUDIA ERRESPETATUZ.

Euskal autogobernuaren eguneraketak aitortu behar du egokitzen jotzen diren lotura politikoak eta barneko lankidetzaren harremanak ezartzeko eskubidea, bai udal mailan eta bai beste edozein lurralde-eremutan, hala Nafarroako Foru Komunitatearekin nola Iparraldeko euskal lurraldeekin, ongizate sozial, ekonomiko eta kulturalaren garapenari begira. Horren muga bakarra herritarren borondatea eta haien ordezkari-instituzioen erabakiak izango dira.

Estatutuko testuak Nafarroako Foru Komunitatea «Akitania/Euskadi Euroeskualdea» izeneko Lurralde Lankidetzarako Europar Taldeari atxikitzeko Hitzarmenetik harago joan behar du – hitzarmen hori 2017/03/08an argitaratu zen EHAAn-. Gaur egun, lankidetzaren alderdiak honako hauek dira: Akitania Berria Eskualdea, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea. Frantziar eskualdearen dimentsioa Euskadiko mugetatik harago doa; hortaz, nahiz eta Eskualde berriarekiko lankidetzak errespetu osoa merezi duen gure aldetik, lankidetzari hori bereizi egin behar da Iparraldeko mankomunitate berriarekin ditugun harremanak –Nafarroarekin ditugunekin batera– positibizatzen eta aurrera eramateko helburutik; gainera, Nafarroaren kasuan, harreman horiek badituzte erreferentzia konkretuak oraingo Estatutuan (euskararen alorrean), eta horiek ez lirateke erreformatu beharko.

Kontua da lurraldetasun irekiko printzipio bat islatzea, eta, aldi berean, herri-politika proiektu bat gauzatzea, identitate kultural eta sozioekonomikoak, ondare historiko komuna, jarduera konparagarriak eta baliabide fisiko konparatuak berresteko prozesuak egituratzen dituen – prozesu horiek desberdinak izan arren-. Subjektu politiko-juridiko titularrak tresna egokiak bideratuko ditu lurralde arteko lankidetzari gauzatzeko, bere eskumenen esparruan, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko lurraldeekin eta Nafarroako Foru Komunitatearekin, Europako Kontseiluan onartutako araudiarekin eta Europar Batasunaren gizarte, ekonomia eta lurraldeen alorreko eskumenen babespean onartutako Europar Batasuneko araudiarekin bat etorriz (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 175. artikulua hiruugarren paragrafoa). Bideratzen diren lankidetzari-tresnek errespetatuko dute euskal lurraldean dauden estatuaren gaur egun agintzen duten instituzioen araudia, eta espazio komun bat bermatuko dute haien garapen kultural, sozial eta ekonomikorako.

Testu politiko berriak formula eta metodo egokiak itxuratuko ditu Nafarroako Foru Komunitatearekin eta Iparraldeko euskal lurraldeekin kooperatzeko eta erlazionatzeko, ahalik eta termino zabalenetan, Europako araudiak eskaintzen dituen potentzialtasunen babespean, bai mugaz eta eskualdez gaindiko lankidetzaren alorrean eta bai euskal lurraldeen arteko harremanak ahalbidetzen dituen beste edozein alorrean.

Harreman horietarako itxuratzen diren formula berriak termino irekietan adieraziko dira, testu artikulatuak gehitu ahal izan ditzan araudiaren bilakaerak berak etorkizunean ahalbidetu litzakeen aukera edo formula berriak, hala nola euskal Euroeskualde bat sortzeko aukera, edo Europar Batasunaren Tratatuaren eta aplikatzekoa den gainerako ordenamendu juridikoaren bilakaerak etorkizunean ahalbidetu litzakeen bestelako egitura instituzionalak sortzeko aukera.

VIII. EUSKADIREN ORDEZKARITZA EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO INSTITUZIO ETA ERAKUNDEETAN, ETA BERAREN KANPO-PROIEKZIOA.

Europar Batasunaren ezaugarri bat da bere ordenamendu juridikoaren arauak Europar Batasunaren eremuko pertsona eta botere publiko guztiak ukitzen dituztela. Horregatik, funtsezkoa da Euskadik aukera izan dezala euskal herritarren interesak eta bere eskumen-eremua Europar Batasunean defendatzeko; horri begira, parte-hartze bermatua izan behar du europar arauak lantzeko prozeduretan, eta eskubidea izan behar du europar organoetan zuzenean esku hartzeko, ahalik eta terminorik zabalenetan.

Europar Batasunean, ente azpiestatalen parte-hartzea ireki eta ahalbidetu egin daiteke, dela Europar Batasuneko araudi propioaren bitartez –Europar Batasunak onartzen dienean ente azpiestataleki organo jakin batzuetan parte hartzeko edo horien partaide izateko aukera– dela Estatu kideen ordenamendu juridiko estatalen bitartez.

Gaur egun, ente azpiestatalek Europar Batasuneko organoetan parte hartzeari dagokionez, aukera hori barne-ordenamendu juridiko bakoitzak xedatzen duenaren mende dago, funtsean. Europar Batasuneko arauak zehazten duten gauza bakarra da zenbat kide dagozkion Estatu bakoitzari, baina gero Estatu bakoitzaren araudiak zehazten du zein den kideak aukeratzeko forma.

Euskadiren ordezkariak Europako eta nazioarteko erakunde eta instituzioetan izan behar dituen garapen eta egituraketak eta Estatutu Politiko berriari jaso behar den kanpo-proiektzioak bat etorri behar dute Estatuarekin erlazionatzeko esparru politiko berriarekin. Esparru politiko berri horrek, Espainiako Konstituzioaren 1. Xedapen Gehigarrian finkatuta, bizikidetzeta eta harreman-eredu berri bat formulatzen du, “berezia” eta “alde bikoia” dena eta bakoitzaren eskumen-eremuen osotasuna errespetatzen duena.

Euskal autogobernu eguneratuak, bere Estatutu politiko berriaren eskumen-funtsarekin bat etorritik, aitortu egingo du Euskadik baduela ahalmena Europar Batasunean eta nazioarteko instituzio eta erakundeetan ordezkari izateko; aitortuko du, halaber, nazioarteko proiektzioa eta kanpo-harremanak izateko ahalmena. Aitortza hori “in foro interno in foro externo” ereduari oinarrituko da; hau da, barneko eremuan aitortuta dagoen eskumena kanpoko eremuan ere islatu ahal izango da.

Espainiar Estatuak bere barneko araudian txertatuko ditu Estatutu Politikotik ondorioztatzen diren konpromisoak, horien aitortza eta errespetua bermatzeko xedez. Estatutuaren erreformak subjektu politiko-juridiko titularraren kanpo-ekintzaren aitortza islatuko du nazioarteko zuzenbide publikoan, bereganatutako eskumen-esparruaren arabera. Izan ere, ulertzen baita eskumen-esparru hori Euskadiren eta Europar Batasunaren arteko harremanetara proiektatzen dela. Erreformak islatuko du subjektu politiko-juridiko titularrak parte hartzen duela Europar Batasunarekin lotutako gaietan, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, gai horiek beraren eskumen edo interesak ukitzen dituztenean. Oinarri honetan sartzen diren alderdiak honako hauek dira:

- Barneko parte-hartzea izatea Europar Batasuneko gaietan: subjektu politiko-juridiko titularrari informazioa helaraziko zaio bere eskumen eta interesetan eragina izan dezaketen Europar Batasuneko gaiei buruz; halaber, gai horien inguruan hartzen duen jarrera helarazi ahal izango dio Estatuko Gobernuari, aplikatzekoa den araudiarekin bat etorritik. Gisa berean, Estatuak bere hasierako negoziazio-jarrera ezartzen duenean Europar Batasuneko instituzioen aurrean, subjektu politiko-juridiko titularrak horretan parte hartuko du, negoziazioak eragina duenean euskal autogobernuaren ahalmenetan; jarrera hori Estatu-Euskadi alde biko Batzordearen bidez hitzartu eta adostuko da.
- Zuzeneko parte-hartzea Europar Batasuneko organo eta instituzioetan: subjektu politiko-juridiko titularrari eskubidea emango zaio Kontseiluaren eta Batzordearen aholkularitza- eta prestatze-organoei parte hartzeko, eta baita Kontseiluaren osaketan ere; hau da, Batzordearen Komiteetan eta Kontseiluaren Lantaldeetan parte hartu ahal izango du. Horrelakoetan, subjektu politiko-juridiko titularrak ordezkari hartu ahal izango du bere gain, eta baita presidentzia ere, hori Estatuarekin adostu eta

gero. Halaber, ordezkariak izendatu ahal izango ditu Espainiaren Bruselako Ordezkaritza Iraunkorrean, indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz. Aldebikotasuna bermatuko da Espainiako Kostituzioaren 1. Xedapen Gehigarriari lotutako eskumenak ukitzen direnean eta subjektu politiko-juridiko titularrarentzat esanguratsuak diren ondorio finantzario edo administratiboak sortzen direnean; horrelakoetan, subjektu politiko-juridiko titularraren jarrera erabakigarria izango da, eta dagokion alde biko Batzordean parte-hartzea negoziatuko da. Estatua urruntzen bada Euskal Erkidegoaren jarreratik, bere jarreraren aldaketa arrazoitu beharko du alde biko Batzorde horretan.

- Subjektu politiko-juridiko titularrak parte hartuko du bai Ekonomia Ministroen europar Kontseiluan eta bai Euskadiren eskumenekoak diren zerga-kontuekin lotutako lantaldeetan; parte-hartze hori bideratuko da Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/200 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako lankidetzeta-mekanismoen bidez, eta Itunaren Batzorde Mistoa hartutako erabakien bidez ere bai.
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean parte hartzea: bai Lurralde Historikoek –euren eskumenak defendatzeko– eta bai Eusko Jaurlaritzak ahalmena izan behar dute Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean zuzenean edo zeharka esku hartzeko, Europar Batasuneko erabakiek eskumenak ukitu ditzaketenean; esku-hartze hori europar araudiak une bakoitzean ezartzen duen terminoetan egingo da. Zeharkako parte-hartzeari dagokionez, Estatuko Gobernuari eskatu ahal izango zaio Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean jardun dezala –errekurtso edo bestelako ekintzen bitartez–, interes eta eskumen propioen defentsan. Orobat, Estatuko Gobernuak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean jarduten badu, subjektu politiko-juridiko titularrak defentsa juridikoan kolaboratuko du.
- Europar Batasuneko Zuzenbidea legedian eta alor betearazlean inplementatzea: Europar Batasuneko zuzenbidea aplikatzea eta betearaztea euskal instituzioen eginkizuna izango da, euren eskumenen esparruan. Europar erregulazio bat existitzeak ez du aldatzen Konstituzioak eta Estatutuak eskumenen alorrean ezartzen duten barne-banaketa. Gainera, Europar Batasuneko zuzenbidea betearazteak eskatzen badu subjektu politiko-juridiko titularraren lurraldetik harago doazen barne-neurriak hartzea, neurri horiek Estatutu Politikoan aurreikusitako lankidetzeta edo koordinazio-mekanismoen bitartez hartuko dira. Beste alde batetik, Europar Batasunak ezartzen badu Estatuaren oinarritzko araudia ordeztzen duen legedi bat, subjektu politiko-juridiko titularrak europar arauetatik abiatuta ezar dezake horren garapenerako legedia.
- Egitura-funtsen kudeaketa: funts horien kudeaketa Euskal erkidegoari dagokio, beraren eskumenekoak diren gaitan.
- Subsidiarotasun eta proportzionaltasunaren kontrola: Lisboako Tratatuaren oinarritzat hartuta, bereziki subsidiarotasun eta proportzionaltasun printzipioen aplikazioari buruzko 2. Protokoloa –hor diseinatzen da alerta goiztiarreko mekanismo deritzana, Europar Batasuneko legegintza-proiektuetan printzipio horien balizko urraketak detektatzen direnean aplikatzeko, urraketa horiei aurre egitearren–, urraketek subjektu politiko-juridiko titularraren eskumenekoak diren alorrean eragina dutenean. Horrenbestez, Europar Batasunaren esku-hartzearen egokitasunari buruzko azterketa bat da (gaur egun, araudi estatalarekin bat etorriz, aholkularitzako esku-hartze baten bidez gauzatzen da azterketa hori); estatutuaren erreforman, esku-hartze hori modu

berezi batean egin liteke, Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarritik eratortzen den foraltasunaren berme instituzionalaren babespean.

- Euskadiren Bulegoa Europar Batasunaren aurrean: subjektu politiko-juridiko titularrak ordezkari bat ezar dezake, bere interesak hobeto defendatzeko Europar Batasunaren instituzioen aurrean. Halaber, Euroeskualdearen parte hartzea bultzatu ahal izango du Europako Batzordearen aurrean, eskualdez gaindiko lankidetzaren alorrean (euroeskualdeak bulego bat izan lezake Bruselan). Halaber, Eskualdeetako Lantaldearen bitartez parte hartu ahal izango du, eta Estatuaren beraren bitartez ere bai.

Subjektu politiko-juridiko titularraren parte-hartzea europar eta nazioarteko instituzioen aurrean erregulatzen duten artikulua ahalik eta termino zabalenean erredaktatuko dira, horren bidez bermatzeko bere presentzia sendotu egin dezakeela eta etorkizunean sor litezkeen organo berrietara zabaldu.

Kanpo-ekintza, nazioarteko harremanak eta kanpo-proiektzioa: Subjektu politiko-juridiko titularrak badu ahalmena kanpo-proiektzioa duten ekintzak garatzeko, bere eskumenen esparruan (in foro interno in foro externo). Orobat, bere interesak sustatu behar ditu, eta hori Estatuak nazioarteko harremanen alorrean dituen eskumenak errespetatuz egin behar du. Kanpo-ekintzaren alor honetan, garrantzitsuak dira, besteak beste, Kanpo-bulegoei buruzko erreferentziak.

Nazioarteko tratatuak: lehenik eta behin, EAEko Autonomia Estatutuaren oraingo 6.5. artikuluan ezarritakoa mantentzea, alegia, euskara zaindu eta sustatzeari buruzko Tratatuak sinatzen jarrai dezala eskatzea Estatuari. Halaber, EAEko Autonomia Estatutuak aurreikusten du EAEk bere eskumenei dagozkien alderdietan betearaziko dituela tratatuak eta hitzarmenak, eta baita ukiezintasun partzialeko klausula ere, tratatuak eragina dutenean EAEko eskumenetan. Orokorrean, subjektu politiko-juridiko titularrari aitortuko zaio Tratatuaren negoziatioei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea; halaber, eskubidea izango du bere eskumenekoak diren gaiei buruzko Tratatuak egin daitezela eskatzeko, eta baita Tratatuak negoziatzen dituzten espainiar ordezkarietan parte hartzeko ere. Testu artikulatuak aurreikusiko du subjektu politiko-juridiko titularrak parte hartuko duela nazioarteko tratatuak negoziatzen dituen espainiar ordezkarietan, baldin eta tratatu horiek eragina izan badezakete Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian bermatutako eta legalki eguneratutako eskubide historikoetan eta euskal autogobernuan. Zehazki, maila estatutarioa emango dio Ekonomia Itunaren 12/2002 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako arauari; izan ere, horren arabera, Estatuak mekanismo egokiak eskainiko ditu Euskadiko instituzioek kolaboratu dezaten Itunaren aplikazioan eragina duten nazioarteko akordioetan. Ildo beretik, Euskadiko instituzioekin batera, informazioa trukatzeko prozedurak sortuko ditu Estatuaren nazioarteko Tratatu eta Hitzarmenak modu egokian betetzen direla bermatzeko, bereziki lankidetzaren administratiboaren eta elkarlaguntzaren alorrean, EBetik datorren araudiari dagokionez. Ildo beretik, testu artikulatuak ahalbidetuko dio Euskadiri tratatuak sinatzea beste herrialde batzuekin, kultura eta euskara zaintzearen eta sustatzearen alorrean. Tratatu horiek ezin izango dira inoiz ere zuzenbidearen kontrakoak izan, ezta espainiar Estatuaren interesen kontrakoak ere; horri begira, tratatua sinatu aurretik, horren berri eman beharko dio espainiar Estatuari.

Subjektu politiko-juridiko titularrari aitortuko zaio nazioarteko akordio administratiboak egiteko eskumena, nazioarteko tratatu bat gauzatuz eta konkretatuz, tratatua bere eskumenekoak diren gaietara buruzkoa bada, nazioarteko tratatuak berak xedatzen duenarekin bat etorriz. Gisa berean, arau-emaile ez diren nazioarteko akordioak egiteko ahalmena emango zaio, bere eskumenekoak diren gaietan.

Euskadik eskubidea izango du nazioarteko erakundeetan parte-hartzeko eta presentzia izateko, sartzeari eta parte-hartzeari buruzko erregulazioak hala baimentzen duenean; horri begira, bereziki azpimarratu behar dira gai hauekin zerikusia duten erakundeak: hizkuntza, kultura, bakea, giza eskubideen defentsa, lankidetzeta, ingurumena, eta abar. Subjektu politiko-juridiko titularrak eskubidea izango du UNESCOn eta bere interesekoak diren gaietan eskumena duten beste nazioarteko erakunde batzuetan parte hartzeko.

Aurreikusiko da gizarte, kultura eta kirolaren alorreko euskal erakundeen nazioarteko proiektzioaren aitortza, nazioartean diharduten gisa bereko erakundeetan eskubide osoz integratzeari begira.

Testu artikulatuan atzerriko euskal zentroen eta horien lanaren aitortza egingo da, zeren funtsezko tresnak baitira Euskadik atzerriko euskal kolektibitateetako kideekin dituen loturak zaintzeko eta harreman komertzial, kultural, politiko eta instituzionalak sustatzeko eta zaintzeko, kolektibitate horiek finkatuta dauden herrialdeetan.

IX. BERMEEN SISTEMA HITZARTUA, LORTUTAKO ITUN POLITIKO BERRIAREN ALDEBAKARREKO ALDAKETA ERAGOZTEKO.

Espainiar Estatuarekin erlazionatzeko esparru politiko berria Espainiako Konstituzioaren 1. Xedapen Gehigarriaren babespean egituratuko da, eredu erlazional "berezi" eta "alde biko" ezarriz. Horren oinarria izango da bi aldeak subjektu politiko gisa aitortzea.

Subjektu politiko-juridiko titularraren eta espainiar Estatuaren arteko harremanaren ezaugarriak elkarrenganako errespetua eta mendetasunik eza izango dira, eta horri begira alde biko harreman-sistema eraginkor bat itxuratuko da, adostasunean eta itunean oinarrituta.

Alde biko sistema hori bermatuta geratuko da erregimen eraginkor baten bidez; izan ere, berme-erregimen horrek euskal autogobernua blindatuko du, haren aldebakarreko aldaketa eragotziz.

Itun politiko berriak garbi utzi behar du orain ez gaudela sistema politiko-instituzional ireki eta zehaztugabe batean aurrean, alegia, denborarekin eta bizitzako gorabeherari lotuta eraikitzen den sistema baten aurrean; horren ordez, orain hasieratik beretik ziurtasun ia osoa duen eta zehaztasunez aurreikus daitekeen sistema bat izatera pasatu gara. Arauak ezarriko du sistema hori 3 hilabeteko epean sartuko dela indarrean; epe horretan, alde biek adosten dituzten bitarteko eta zerbitzu publikoak modu bateratuan eta behin betiko eskualdatu beharko dira, estatus politiko berria behin betiko bereganatzeko. Sistemak ez du beste inongo transferentzia-prozesurik behar izango etorkizunean.

Testu artikulatuak mekanismoak aurreikusiko ditu Estatuaren eta subjektu politiko-juridiko titularraren artean eskumenen inguruan sortzen diren desadostasunak eta gatazkak aldebikotasunez eta adostasunez konpontzeko –horiek itun-tradizioaren funtsezko elementuak dira–, prozedura prebentibo eta kooperatiboak lehenetsiz auzien eta prozedura judizialen gainetik. Jadanik transferituta dauden eskumenen inguruan sortzen diren gatazkak konpontzeko, berriz, testuak prebentzio-mekanismoak aurreikusiko ditu, lehentasunez. Horien artean, garrantzitsuena Itun Politikoaren Batzorde Mistoia izango da: alde biko foro paritario bat, beharrezkoa den lankidetzak aktibatuko duena objektibatzeko, modu hitzartuan, zer baldintzatan erabiliko dituzten aldeek euren eskumenak “itundutako gaien” alorrean; halaber, foro horrek ezarriko du zer parametrotan bideratu behar den alde biko lankidetzak, eta nola errespetatu behar diren alde anitzeko lankidetzak eta Euskadiko eta Estatuko gainerako erkidegoen arteko elkartasun eraginkorra.

Itun Politikoaren Batzorde Mistoaren eginkizun nagusia izango da harremanei eta eremu sektorialeiei aplikatzeko den zuzenbide estatuala aztertzea eta hitzartzea, Euskal Erkidegoak “hitzartutako gaien” alorrean bereganatutako eskumenen argitan. Batzorde horren adostasuna ezinbesteko betekizuna izango da aztergai dauden arauak indarrean sartu daitezkeen euskal lurraldean.

Halaber, testuak aurreikusiko du arbitraje izaerako foro paritario bat sortzea, eskumenen inguruko gatazkak autokonposizio-formulen bitartez konpondu ahal izateko.

Azken batean, auzia aurreko formulen bidez konpontzen ez bada, Konstituzio Auzitegiak esku hartuko du. Horri begira, exijitu beharko da beraren eredu eta funtzionamendua parametro onargarrietara eramanez dadila, bi aldeko harreman-sistema berriak eskatzen dituen inpartzialtasuna eta objektibotasuna bermatzeko.

X. ESKUBIDE HISTORIKOEN ERRESERBA KLAUSULA MANTENTZEA, KONSTITUZIOAN ETA GERNIKAKO ESTATUTUAN JASOTA DAGOEN BEZALA.

Euskal autogobernuko edozein itunen berme juridiko eta politikoak Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarri bakarrean aldarrikatutako ezin kenduzko eskubideen errespetua izaten jarraituko du.